

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kepa Errasti Gorroño

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1981)*

Aurkibidea



Biografia



Ama Aretxabaletakoa dauka eta aita Eskoriatzakoa. Guraso biak lanean zebiltzanez, amonaren etxean denbora asko igarotzen zuen Kepak umetan. Kurtzebarri ikastetxean ikasi zuen, eta hantxe hartu zuen parte lehenengo antzezlanetan, 12 urte ingururekin. Gaztetxotatik zeukan antzezteko griña, eta 14rekin antzerki tailer batean hartu zuen parte, Arrasaten. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta ondoren antzerkigintza Donostian, TAEn. Goenkalen hasi zen lanean, lehenengo aktore moduan eta gero gidoilari. TAEko irakasle ere izan da hainbat urtean. Antzerkian jardun du batez ere. 2015ean Xake Produizioak sortu zuten Xabier Ormazabalek eta biek, eta hainbat lan taularatu dituzte. Telebistan ere ibili da, besteak beste "Barre librea" saioan. "Erlauntza" antzezlanaren (gero film ere bihurtua) gidoilaria da.

Zintak

ARE-082

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-11-26
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Umetako oroitzapenak amona Maritxurekin

- **Erref:** ARE-082/003
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amonak hazi zuen eta erreferente moduan dauka. Oso borrokalaria zen amona: fundizio batean egin zuen lan. "Matriarkatu" moduko batean bizi izan da.

2. Indiana Jones izan nahi zuen; lehen antzezlanak eskolan

- **Erref:** ARE-082/004
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Indiana Jones asko gustatzen zitzaion umetan. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan ibili zen 8. mailararte, eta han egin zituen lehenengo antzezlanak.

3. Arrasaten antzerki ikastaroa, 14 urterekin

- **Erref:** ARE-082/005
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

14 urterekin AEDk antolatutako antzerki ikastaro batean eman zuen izena. Ikasturte bukaeran antzezlan bat egin zuten, Amaia antzokian.

4. "Iparragirre" antzezlan, 12 urterekin

- **Erref:** ARE-082/006
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Kurtzebarri eskolan, Iparragirre antzezlanean protagonista izan zen.

5. Zinemazalea umetatik

- **Erref:** ARE-082/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pelikulak erosten zituen ezkutuan. Familian aktorerik ez zeukan, baina "teatreroak" bai.

6. Kazetaritza ikasi zuen Leioan eta antzerkigintza Donostian

- **Erref:** ARE-082/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:12:51. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Kazetaritza ikasi zuen, nahiz eta garbi zeukan aktore izan nahi zuela. Ondo etorri zitzaion, gerora gidoigile moduan ere ibili izan delako. Madrilera joateko asmoa zuen, baina Donostian ikasi zuen antzerkigintza, TAEn.

7. Madrilera joan beharrean, Donostiara

- **Erref:** ARE-082/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:17:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Kazetaritza amaitzen ari zela Madrilera joatea erabaki zuen, antzerkigintza ikastera, baina ez zuten hartu. TAEn ikastea oso esperientzia polita izan zela dio.

8. Goenkalen hasi zen lanean, aktore moduan

- **Erref:** ARE-082/011
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:17:18. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

TAEn ikasten ari zela Madrilera joaten saiatu zen berriro, eta justu orduan Goenkaletik deitu zioten. Geratzea erabaki zuen. Lau urte egin zituen Goenkalen. Telebista eskola ona da, baina bizio batzuk ere hartzen dira berehalakotasun horretan.

9. Goenkalen gidoilari moduan ondoren

- **Erref:** ARE-082/012
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:20:11. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Goenkalen zegoela sortu zitzaion gidoigile moduan hasteko aukera. Film laburren gidoigintzako ikastaro bat egin zuen, eta "Maritxu" izeneko gidoia eta film laburra egin zuen.

10. Aktore lana nahiago gidoigintza baino

- **Erref:** ARE-082/013
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Erraztasuna dauka istorioak idazteko, baina aktore lanetan disfrutatzen du gehien. Bere neurriko lanak idazten ditu, berak antzezteko modukoak. Umorea eta drama, bietan moldatzen da ondo, baina badauka umorerako joera bat.

11. Umoreari buruz

- **Erref:** ARE-082/014
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Zaila da mundu guztiarentzat umorea egitea. Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat ematen du, berezitasun partikularrak, eta umorean ere igartzen da.

12. Euskaraz sortzea naturala da berarentzat

- **Erref:** ARE-082/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aitziber Garmendiaren bakarrizketa bat aipatzen du, euskaraz sortzeari buruzkoa. Euskaraz bizi da eta euskaraz sortzea da naturalena berarentzat, instintiboa. Militantzia puntu bat ere badauka.

13. Euskaraz edo gaztelaniaz antzezten

- **Erref:** ARE-082/017
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Erosoago dago euskaraz antzezten, baina testuak gaztelaniaz errazago automatizatzen ditu. Antzezlanak bi hizkuntzatan egiteak ahalegin handia eskatzen du. Hizkuntza aldaketak bi obra ezberdin izatea dakar.

14. Euskalkiak eta batua: orekaren beharra

- **Erref:** ARE-082/018
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalkian antzezten sentitzen da erosoan, baina batuan jardutea ere ez zaio kostatzen. Euskara batua arrotza ez gertatzea garrantzitsua da. Euskalkien aberastasuna.

15. Hizkuntza gauzak kontatzeko tresna moduan

- **Erref:** ARE-082/020
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:54. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalkien aberastasuna. Gauzak kontatzeko orduan hizkuntza tresna moduan erabiltzea polita da. "Mami Lebrun" antzezlanean euskalkia aldatuta aldatzen dira pertsonaiak.

16. TAEn irakasle moduan; talde-lanaren zalea

- **Erref:** ARE-082/022
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Kosta egiten zaio bere burua irakasle moduan ikustea. 'Eredu' izatea ez darama ondo, oso zalantzatia delako eta oso gardena. Talde-lana oso aberasgarria dela dio, eta gidoia berea denean irekita egoten da ekarpenetarako.

17. Xake produkzioak

- **Erref:** ARE-082/024
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Xake produkzioak sortu zuten Xabier Ormazabalek eta Kepak, "Mami Lebrun" antzezlanaren ekoizteko (hil berri zen amona baten istorioa, gaztetan kabaret batean lana egindakoa). Arrakasta izan zuen antzezlanak, eta ordutik beste bi antzezlan ere sortu dituzte.

18. Maskulinitateari buruzko antzezlanak

- **Erref:** ARE-082/025
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:49:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+

Laburpena:

"Fadoak entzuten zituen gizona" maskulinitateari buruzko antzezlanak da. "Lur", aurreko antzezlanak, mutiko transexual bati buruzkoa zen. Adibideak ipintzen ditu maskulinitatearen ereduak buruz.

19. Heziketa sexuala eta fikzioa

- **Erref:** ARE-082/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:49:54. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Uste du bera gaztea zenetik asko aldatu dela, sexualitatea naturaltasun handiagoz ikusten dela, baina ereduak hor daude.

20. Transexualitateari buruz dokumentatzen

- **Erref:** ARE-082/029
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+

Laburpena:

"Lur" antzezlanaren idazteko transexualitateari buruz dokumentatu zen.

21. Homosexualitatearen tratamendua fikzioan

- **Erref:** ARE-082/030
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+

Laburpena:

Homosexualitatea fikzioan nola lantzen den. Goenkaleen pertsonaia homosexualak jokatzen zuten, eta hori zen gaia: bere orientazio sexuala.

22. Kantatzea eta gitarra jotzea gustuko du

- **Erref:** ARE-082/034
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:01:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Hikaren "Txerriboda" antzezlan-kabaretean kantatu egiten zuten, eta beste antzezlan batzuetan ere bai. Gustatu egiten zaio. Gitarra ere jotzen du, baina oso gutxitan publikoaren aurrean.

23. Abaigarren udalekuetan

- **Erref:** ARE-082/035
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:01:18. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

Abaigarren udalekuetan mozorroak egiten ziren. Inauteriak ere asko gustatzen zaizkio.

24. Antzerkia terapeutikoa ere bada

- **Erref:** ARE-082/036
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:02:08. **Bukatu:** 01:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerkia terapeutikoa dela dio, eta kontatu nahi duzuna kontatzea ere bai. Lanbide izorratzailea ere bada, Keparen ustez: epaitua sentitzea ohikoa da, eta aktoreen autoestimua kolokan jartzen du horrek.

25. Sare sozialetako 'errealitatea'

- **Erref:** ARE-082/038
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:05:25. **Bukatu:** 01:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialetako errealitate birtuala ez da benetakoa. Twiterren oraintsu hasi da, eta konturatu da kontu handia izan behar dela, arriskutsua delako.

26. Dependentzia sare sozialekin

- **Erref:** ARE-082/039
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:07:46. **Bukatu:** 01:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Gaztetxoek dependentzia handia dute teknologia berriekin, eta heldutxoek ere bai. Norbere autoestimua sare sozialen arabera izatea arriskutsua da. Begietara begiratzearen eta ukitzearen alde dago Kepa.

27. Antzerkia, zinema eta telebista

- **Erref:** ARE-082/041
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:09:32. **Bukatu:** 01:12:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Antzerkian egin du lan gehien. Telebistan ere ibili da. Orain ETB1eko "Barre libre" programan dago. Antzerkiak ematen duena aipatzen du. Zinemako lan

egiteko modua desberdina da. Telebistan agertzeak aurpegi ezagun bihurtzen zaitu.

28. "Zauriak" eta "Bucle" film laburrak

- **Erref:** ARE-082/043
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:13:01. **Bukatu:** 01:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Zauriak" eta "Bucle" film laburrei buruz hitz egiten du.

29. Istorio "honestoak" kontatzearen garrantzia

- **Erref:** ARE-082/045
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:15:31. **Bukatu:** 01:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Benetako istorioak, 'honestoak', kontatzeak publikoa harrapatzen duela uste du. Xake produkzioak ez da beraien ogibide bakarra, eta ez dute etengabe sortzeko beharrik.

30. Lanbide gorabeheratsua

- **Erref:** ARE-082/046
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:18:47. **Bukatu:** 01:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aktore ogibidea oso gorabeheratsua da: lan asko batzuetan eta gutxi beste batzuetan. Gidoilari moduan ere egin du lana, antzeztetik bakarrik bizitzea zaila delako.

31. "Erlauntza" antzezlanaren gidoia

- **Erref:** ARE-082/047
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 01:21:13. **Bukatu:** 01:25:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Erlauntza" antzezlanaren gidoia nolatan idatzi zuen kontatzen du. Garbi zeukan emakume batek zuzendu behar zuela, eta Mireia Gabilondok zuzendu zuen. Film ere bihurtu zen gerora.

32. Aktore izan nahi duenari esango liokeena

- **Erref:** ARE-082/049
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:26:29. **Bukatu:** 01:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aktore izan nahi duen gazte bati esango liokeena. Lanbide zaila da eta garrantzitsua da kontatzeko grina izatea. Pribilegio bat da gustatzen zaizun horretan lan egitea.

33. Oholtza gaineko sentimenduak

- **Erref:** ARE-082/050
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:28:55. **Bukatu:** 01:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Oholtza gainean jolasten ari dela sentitzen du. Oso ondo pasatzen du antzezten.

34. Umorea egitea konplexua da

- **Erref:** ARE-082/052
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 01:30:21. **Bukatu:** 01:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Beti egongo da minduko duzun norbait umorea egiten duzunean.

35. Zaletasunetako bat: mendia

- **Erref:** ARE-082/054
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:33:53. **Bukatu:** 01:35:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mestia eta hondartza

Laburpena:

Zaletasunetako bat mendia du. Lizargarate da bere leku kuttunetako bat.

Errasti Gorroño, Kepa | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com